

# «PARIS JOUR» IL DA

Er zen eguneroko on oietako bat, eskas antzekoa baizik, Berrriak asko puztuak eta arrigarriro eta beldurgarriro idazten zituena, irakurleek jakin-min eta zentzuzko esnarazteko.

Baifia il da. Ez norbaitetik eraili duela, ezin bizi zelako baizik. Ez du Gobernuaren gabil estuak itxiarazi. Bere gisa il da. Soldata jasotzea eskatu zioten bertako langilleak. Lehendik zorraz eta ezin jaso. Debalde lanik egiteko inor ez eta atera gabe geldi behar.

Er zen ain maitea PARIS JOUR beste eguneroko askoren artean. Ez zuten ain gogozko, ez bai zioten gauzak bere neurri batean gordetzen. Beti gainezkatuak azaltzen bai zioten. Alaz guziz ere PARIS JOUR-en eriotzak mindu eta nahigabetu egin ditu.

Berri-emaila bat, albistari bat il da. Jende-mota bati albistean janaria ematen zion egunerokoak. Egiten zuten bere serbitzua gizaratean. Orain bat gutxiago gizaratearen serbitzari oietan. Bete gabeko zulo bat gehiago gizaratean. Eta ori mingarri da lan beheran ari dan sende batentzat.

Ez ori bakarrik, ordea. Azken bera ikusten dute beren buruntzat eguneroko guztiak. Denak ere ezin bizi eta il egin behar. Gaiñena daramate il behar tristean epaia. Telebista bakarrik geldituko litzake bizirik.

Orregatik egin dute eguneroko guztiak eta irriti denak huelga. "Ez zaio eguneroko bati bakarrik ere, iltzen utzi behar. Gobernuak lagundu behar die guztiak diruz, bizirik iraun dezaten"-zioten. Orregatik eta ortarako elkartu dira eguneroko eta irriti guztiak.

Bikaifia da benetan frantziarren jokabide au guretzat. Bakoitzak bere iritziokoak bakarrik izatea nahi al luke aldizkari guztiak? Eta iritzi eta jokabide ezberdinekoak behar ditugu aldizkariak inor jakin-miña esa gabe geldituz ez dedin.

Baifia au ezin dugu ontzat eman euskaldun kaskagorrorok. Il dedilla nik bezala pentsatzen ez duena esan ohi dugu. Orduan elkarren arteko il edo biziko borroka. Gu ez gaude gu ez bezalako danari bizitzen laguntzeko. Erail eta izkutatuta arteko pakerik ez dugu izaten.

Ikus bestela besterenakin nola sartzen dan zenbait aldizkari. Besteren aurka itzein besterik ez du egiten zenbaitak. Bestera ito arteko onik ez.

Eta ortarako bide guztiak dira onak: Gezurra, azpikeria, jokozkiña, saldakeria eta abar. Kale baztarrak eta taberna zuloak ez ezik Eliak ere onak dira ortarako. "Anai arteko gorrotoa zabaltzen ari dela Z. Argia otsegin" du apaziz batek Donostiako aitare batetik. "Campaña de escándalo" batean sartuta zegoela esan zen enen ardurapean dagoen erdal-eguneroko baten orrian. Au guzira ezinerraman baten gaitza da. Ezin onar besteren bideak eta iritziak.

Orregatik da zaila gure artean askatasuna eta nortasuna. Aldizkari batek behar beharrezko dituen bi doak. Albiste garbi eta egiazkoak zor dizkio eguneroko batek erriari. Erriari pentsarazten lagundu behar dio. Erria esmatzen eta ezitzen lagundu behar du.

Ortarako, berriz, elburu, bide eta xede jakin batzuk artu behar ditu orbelaren atzera aizeak astindu ez dezan eta irakurleak nahastu. Dena den au dela ueste dugu aldizkari baten jokabidea. Bakoitzak bere bidea artu: askatasuna eta nortasun bidea, alegia. Eta beste bide ezberdin batzuk artu dituzten bere sendeak maite eta errespetatza.

# GIPUZKERA BAI, LAPURTERA ERE BAI

Filologi ta linguistika gauzetan ez ikasi batentzat beti da zail gauz hauetaz zerbitz idaztea. Bestalde, bestek, behar dutenek —Euskaltzaindiak— hartutako erabakia jarraitzeko prest egonik, kontsiderazio batzuek bakarrik egin daitezke gai honi buruz.

Konsiderazio hauk, berriz, iturri bi dute: batetik, zenbait mailetan eta zenbait girotan gai honi buruzko erabakia aldeaz aurretik hartuta dagoela dirudielako, azkeneko erabakia horrelakoa izango delakoan noski, baina une berean azken erabaki hori nolabait bortxatuaz; bestetik, jendeari entzundakoa da kontsiderazio hauen iturri. Jende batzu esan beharko, asko edo gutxi direla jakin gabe, ba direla bakarrik, eta gipuzkoarrak.

Konsiderazio hauek bi eratakoak dira: soziopolitikoak, nolabait esateko, batzuek, linguistiko historikoak bestee. Euskeraren baldintza soziopolitikoak gogoan izanik ba dirudi gipuzkera ta gipuztasuna iriteten direla garaile. Baina helburuak euskera ta dunen batasuna izan behar baldin badu, garbi dago gipuzkera ta gipuztasuna batasun bat izan beharrean, erredukzio bat izan behar litzakeala, baldin eta galdontzeko euskalduneri gipuzkeran oinarriturik osatutako batasunean euren burua ber aurkitzea ahalduko ez balitzale.

Gipuzkerak nun eta nola aberasturik ba daukeala ere garbi dago. Eta zergatik ez duen aberastu behar ulertezina da. Literatura kondeiran zehar beste euskalkiak eman dutenagatik eta gaur egun oraindik dituzten posibilitateegatik, gipuzkerak zerbitz ikasi dezake. Gipuzkera ez da izan beti (edo inoiz) ez euskalkirik zabalduena ez aberatsena, ez literaturarik bikalena izan duen euskalkia. Benetan aritzeakoa izango litzake gaur egun mintzatzen den gipuzkerak euskera abstraktiaren posibilitate guztiak jaso izana, eta euskeran gerta daitezkean desitxuratzeta ta akatsetatik bat ere ez edukitzea beregan. Gauza bat da bentaja edo baldintza geografiko, eta soziopolitiko batzuek direla ta euskeraren batasuna egiterakoan oinarri aproposa bezala gipuzkera azaltzea, eta besterik, bere hortan, batasun hortarako nahikoa ta gehiegi dela pentsatzea.

Gizonak mugatu beharra daduka bere posibilitateetan eta hizkuntza batek ere bai. Bere barruan dituen posibilitate abstrakto guztiak egiztatzen hasten bada, laboratoriorikoa hizkuntza gerta daiteke. Halaz ere, jokoan dagoena gizon bakar bat ez denez gero, gizon askok osatzen duen herria baizik, posibilitate bat baino gehiagotara irekirik egon behar du hizkuntzak, aditzaen berezik. Eta euskerari posibilitate hoiak eskura eskeintzen bazalzikio, zergatik, besterik gabe, baztertu?

# TXALO JO BEHAR

Gutxi gora-behera, liburu bat as- tean (bat baino gehiago ere bai) argitaratzen da gaur euskaraz; eta, ene uestez, laister lortuko dira ehun liburu urtean. Ez da hori, izan, kopuru gaitz; eta edozein iritzi, aldeko ala aurkako, eman euskaldunen beharren arabera zeri da- gokion edo zein hutsune betetzen duen.

Sarasolak berriki azaldu duenez, azkeneko bi urte hauetan agortu egin da pitin bat euskal literatu- raren joritasuna. Sortzapean-lanetan (nobela eta olerkigintza bereziki) geldieune batetan omen gaude; eta, Sarasolaren uestez, euskararen ba- tasunaren arloak horretara gaitu. Kintanak ere, aditzaen arazoa be- rriki aztertu duelarik, gure grama- tika-zulo honetatik irten beharra aipatu du.

Geldienerik ote dagoen ez da- kit. Baina nik neuk ere (eta honelaxe lehenengo aldiz mintzo ez naizelarik), geldiuenerik obratu ala ez obratuta, gauza bera esango dut gaurkon: ezin daitekeala Eus- kal Herriaren arazoa, ez euskal literaturarena bera, gramatika- arazo bihur; gisa dela hizkuntzalariek hizkuntza-lan hori egitea; baina ez dela normala, ez onuragarria ere, idazlearen multzo osoa (are gutxia- go «etxeko euskera» besterik ez dakitenean otea) hizkuntzako nar- tizismora lerratzeta, eta berri osoa bere txilborriari so paratzea. Idaz- le izatea, bestalde, gauza bat da; eta gramatikalarri izatea beste bat. Gai zail hauetan, teknika-gai guz- tietan bezala, abots gehiago entzun

eta handiagoa da kakofonia... eta porru-piloa!

Nola irtengo ordea geure kin- katik?

Alde batetik, teknika-arazo ho- rietarako erabakitzaile bidezko eta bakar bat hartuz: EUSKALTZAIN- DIA, noski. Eta, bestetik, hizkun- tza-ahuleziak ebakitzeko, korapiloak askatzeko, eta aurrera jotzeko, pro- posamendu berriak eginez.

Gure istilu aspergarri hauek ez dira, inundi ere, lau sasi-jakin- tsuren setaren ondorio. Ez. Sus- traian zinezko problemak dira, eta premia osoak. Gure hizkuntza ez da inoiz landua izan, ez da sekula administrazio-tresna eta literatura- lanabes izan. «Queremos el euz- kera de las montañas, puro y fresco como los arroyos de las alturas» esatea, ez da ezer esatea; «mendietako» hizkuntza horrek, be- re horretan hain zuzen, gaur balio ez digulako. Eta esaldia bota du- enari ere ez; eta esaldiaren er- daltasuna da agiriak nabarmena.

Ezin bestezkoa dugu euskara zarpaillasun horretatik jasotzea eta AURRERA jotzea. Ez dugu proble- ma hau H-aren kontrako izkirimiri arlo- te atzerakoiak eta kirtenerkiak asmatuz gaudituko. Gauditze- ko, jaso eta eman egin behar da.

Hots, hauxe egin dute «Ikastola- Hiztegia» prestatu dutenek: lan is- laria, ospetegabea, iluna; lan txalo- garria benetan. Eta Euskaltzaindiak harrera ona egin dio liburuari; eta ona merezi zuela iruditzen zait.

Txukuna itxuraz, oinarritzko hiz- tegiaren eginkizunari eraso diote ausarki egileek; eta eskaini di- guten frutua mardula da. Orain da kritika sendo eta funtsatuak egiteko garaia; alegia, Euskaltzain- diak ikutuak hemen eta han eman, eta iritziak bildu ondoren, bere AZKEN HITZA eman dezan baino lehenago. Orain da mementoa; ez erabakiak hartu ondoren.

Arantzakozko erabakiak gaur onar- tu nahi ez dutenek, ere berean, lehen izan zuten kontra egiteko aukera. Orduko kritikak egokiak

izan zitezkean; gaurko marmarrak eta anarkiak, kalte-iturri eta ze- haro arbulagarriak. Orain ez dugu eskubiderik atzera egiteko. Zerga- tik? Hain zuzen ere, ateka honeta- tik, gramatika-inflazio honetatik, ahalik eta azkarrenik irten behar delako. Honela jokatzeko ez badu- gu, ez dugu sekula euskararen arazoa konponduko. Eta besterik ere ez, bestalde; jokabide horiek (alegia, talde batek zer gerta ere beste guztiak bere iritzia irents- -arazteak) oso izen ezaguna bait darama politikaren hiztegia...

«Ikastola-Hiztegia» baditu bere hutsuneak edo ahuleziak. Baina abiaburu bikaina iruditzen zait. Bat- zutan garbizaleegi agertzen da («odolgorriki» = hemoglobin); eta beste batzutan, berriz, beharrik gabe onartzen du erdal fonetika («animali» = eusk. alimale, alima- le animalia). Egoki litzake, bestal- de, hurrengo argitaraketa egitera- koan, erdaratik euskararako bila- bide bat ematea; bestela zail ger- tatzeko bait da libu erabiltzea.

Hitzen sentiduari edo adieraziari dagokionez, berriz, hobetatzada- kat Azkue-ren bidea (fransesezko eta gaztelazko kidea, azalpen ba- tekin), gaztelazko kide bakar eta soil bat (sasi-kide askotan, gaine- ra) ematea baino. Azkuek argitza- pen luze bat eman ohi du asko- tan: «Giharra: leño propiamente dicho, parte central del árbol, cu- bierta de liber, albura y corteza; coeur, bois proprement dit, partie centrale d'un arbre, couverte de liber, d'aubier et d'écorce». Batzu- tan (ez beti) honelako zerbitz egin behar litzakeala iruditzen zait. Bes- tela, kide bakar bat proposatuz, erdal semantika-zatiketa onartzen da; eta erdal egiturentzako arrai- dua irekitzen. Beste hitz batez: saltsa frankoren iturri berri bat.

Zenbait kasotan, bestalde, hitzek elkar mugatzen duten kasotan, hobe litzake nik ueste hitz-mordo osoa hartu, eta dena elkarren mu- gatzaile gisa ematea, dagozkin azalpenekin batera noski:

// sustrai / erro / zain //

// garaino / zaldi / behor / mo- xal / pottoka //

bakoitzari zer adierazkizun-eremu dagokion zehatz azalduz.

Artikulu batetan ezin daiteke de- na atzer (nahiz dena xeheki atzer- tu behar den); eta hemen honen- besterikin utziko dut gaita.

Baina ohar bat bukatu aurretik: honelako lanak burutzeko eta ikasiz piztuko dela berriz euskal litera- tura. Ez bestela. Euskal literatura gramatika eta hiztegi aldi «asper- garri» honetatik jaregiteko, hone- lako gramatika eta hiztegi-lan ego- kitatik igaro behar da.

Mila zorion beraz, bihotz-biho- tzez, Jaxinto F. Setien eta honen laguntzaile pijoiei. Bejondeizuelai! Eta, ekin!

**ZERUKO ARGIA**

**Zuzenadaria:**  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoi- ko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada- Pamploña).  
Donostia: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

**ARPIDE SARIA:**

Barruan	300 pezeta
Korreo batasun- tako errietan	350 pezeta
Atzerrietako bes- te errietan	370 pezeta
Aidez	Aurrez gal- detu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta